

## EUSKAL HERRIAN LITERATURA BELTZA SUSTATZEKO

### (H)ILBELTZA BEKA

#### 2018 urteko diru-laguntzaren oinarriak

##### **Lehendabizikoa. Diru-laguntzaren xedea**

Baztango Udalak eta (H)ilbeltza elkarteak Txalaparta argitaletxearen laguntzarekin, euskal literatura beltza hedatu eta munduko literatura beltza euskaratzeko asmoz, HILBELTZA BEKA proposatzen du.

Deialdi honen helburua Patricia Highsmith idazle estatubatuarraren *The Blunderer* eleberri beltza itzultzea da. Horretarako, parte-hartzaileek Patricia Highsmithen aipatutako eleberriaren lagin bat itzuliko dute, zehazki 29. atala.

##### **Bigarrena. Kopurua**

Deialdi honi 5.000 euro esleituko zaizkio, Udalaren 2018. urteko aurrekontuko "1-3350-4890000 EUSKARA DIRU-LAGUNTZAK" kontusailaren kargura 3.000,00 euro eta beste 2.000,00 € Txalaparta argitaletxearen kargu.

Lagin irabazleari 3.000 € emanen zaizkio hasiera batean (2018ko irailean) . Udalak eginen du ordainketa.

Idatzia akitzerakoan bertze 2.000 € Txalaparta Argitaletxearen kargu.

##### **Hirugarrena. Argitalpena**

Deialdi hau iragarriko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Baztango Udalaren webgunean, udaletxeko iragarki-oholean eta eskualdeko komunikabideetan.

##### **Laugarrena. Aurkezteko epea eta lekua.**

Deialdirat aurkeztu nahi dutenek, Patricia Highsmithen *The Blunderer* eleberriaren 29. atala formatu digitalean (PDF edo .doc bertsioan) aurkeztu beharko dute. Itzuli beharreko pasartea [ilbeltza.blogspot.com](http://ilbeltza.blogspot.com) edo [baztan.eus](http://baztan.eus) webgunetatik deskargatzen ahalko du

Lanak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hasiko da. Eskaria egin beharko dute 2018ko ekainaren 21a baino lehen Baztango Udaleko erregistroan.

Deialdi honetan parte hartu nahi duen orok Baztango Udaleko Erregistroan "(H)ILBELTZA BEKA" izena daraman gutunazala hertsirik aurkeztu beharko du eta horren barnean, bertze 2 gutunazal, horiek ere hertsirik:

1. Gutunazala, "ITZULPENA" (gutunazalean adierazi):
  - Bortzgarren puntuko a)
2. Gutunazala "ITZULTZAILEA" (gutunazalean adierazi):
  - Eskaera eta bortzgarren puntuko b) eta c) dokumentuak.

Epaimahaiak, jasotako proiektu guztiak aztertuko ditu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2018ko irailaren 15a baino lehen. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe uzten ahal dute epaimahaikoek. Erabakia publiko egin baino lehen, Baztango Udala paratuko da irabazlearekin harremanetan.

Sariaren onarpenarekin batera, itzultzaileak hurrengo urteko epaimahaiari kide izatea ere onartzen du.

Itzulpen irabazlearen jabetza diru-laguntza jaso duen egilearena izanen da. Alabaina, lan horrek ezingo du bertze inongo beka edo saririk jaso, ez laguntzaren aitzinetik ez eta ondotik ere, argitaratu osteko sariak izan ezik.

### **Bortzgarrena. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.**

Eskariarekin batera aurkeztu beharko dute:

- a) Patricia Higshmithen *The Blunderer* eleberriaren 29. atala formatu digitalean (PDF edo .doc bertsioan).
- b) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- c) Laguntza zein banku-kontutan jaso nahi duen eta hori eskatzailearen izenean dagoela ziurtatzen duen banku-etxearen agiria.

Aipatu agiri horiek jatorrizkoak izan behar dute, edo, bestela, kopia konpultsatuak.

Aurkezturiko dokumentazioa osaturik ez badago, interesdunari dagokion dokumentazio osagarria hamar eguneko epean aurkeztea galdeginen zaio.

### **Seigarrena. Itzulpen lanaren aurkezpena.**

Eskatzaileak laguntza emanen zaiola jakinarazi ondotik urte bateko epean aurkeztu beharko du itzulpena. Epea gainditurik ez da lanik onartuko eta udalak emandako diru-laguntza erreklamatzeko ahalko du.

Itzultzaileak bere lana entregatuko ez balu, edo itzulpen horren izaera eta kalitatea, epaimahaikoek iritziz, proiektuan azaldutakoek aldean nabarmen kaxkarragoak balira, itzultzaileak itzuli egin beharko du jasotako dirua.

Laguntzaren jasotzaileak liburua buruturik EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEAREN barnean egiten den IDAZLEEKIN SOLASEAN ekimenean parte hartuko du.

### **Zazpigarrena. Balorazio, kudeaketa eta ebazpen organuak.**

Aurkeztutako lanak helburu horrekin osaturiko batzordeak baloratuko du. Bertan Udalaren ordezkaria (Joseba Otondo), Txalaparta argitaletxearen ordezkaria (Mikel Soto) eta 2017ko bekaren irabazlea (M.A. Elustondo) egonen dira epaimahaiburu.

Ebaluazio batzordea izanen da bekaren inguruko prozedura bideratuko duen organoa, eta proposamena eginen dio Tokiko Gobernu Batzordeari, ebazteko eskumena duen organoa.

Nolanahi ere, beka eman gabe utz daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako proiektuetatik bakar batek ere ez badu gutxieneko kalitaterik erdietsi.

#### **Zortzigarrena. Balorazio irizpideak.**

Itzulpenean: Kontuan hartuko da jatorrizkoaren estiloarekiko fideltasuna, informazio-galerarik eza eta testuaren irakurgarritasuna.

#### **Bederatzigarrena. Esleipenaren ezeztapena, betebeharrak ez betetzeagatik.**

Baldin eta esleipendunak ez baditu oinarri hauek ezarritako epeak (itzulpena aurkeztekoak edo epaimahaiari lanaren egoeraren berri ematekoak) errespetatzen, edo eskatutako agiriak ez badira aurkezten, edo lanak ez baditu proiektuan ezarritako ezaugarriak bete, edo proposatutako itzulpena baino aise ere kalitate gutxiagokoa bada, balorazio batzordeak Udalaren organo eskudunari eskatzen ahalko dio laguntzaren esleipena ezeztatzeko; halako kasuan, esleipendunak jasotako dirua itzuli beharko dio Baztango Udalari.

#### **Hamargarrena. Itzulpenaren argitalpena.**

Itzulpena argitaratzen bada udalari 10 ale dohainik eman beharko zaizkio.

Deialdian parte hartzen dutenek horri buruzko arauak oro onartuko dituzte eta men eginen diete Baztango Udalak hartzen ahal dituen erabakiei; epaia apelaezina izanen da. Lehiaketaren oinarriak ez betetzeak lehiakidea kanporatzea ekarriko du berekin.

Txalaparta argitaletxeak argitaratuko du itzulpena. Epaimahaikoek onespina ematen dutenetik sei-zazpi hilabeteko epean karrikaratu beharko da liburua, eta bertan, bekaren aipamena eginen da nahitaez.

#### **Hamaikagarrena. Arau-hausteak eta zehapenak.**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, xedatutakoak aginduko du.

#### **Hamabigarrena. Datuen babesa.**

Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

#### **Hamahirugarrena. Aplikatuko den araudia.**

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Foru Legea, azaroaren 17koa, aplikatuko dira.

## **Hamalagarrena. Ebazpena eta helegiteak.**

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gora-beherak oro ebazteko. Emanen diren administrazio-ebazpenen aurka ondoko errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

\_Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.

\_Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.

\_Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

ERANSKINA I. Parte hartzeko eskaria

Jaun/ Andrea:

NAN:

Telefonoa:

Helbidea:

Baztango udalak Txalaparta eta (H)ILBELTZAREN laguntzarekin antolatu duen **EUSKAL HERRIAN LITERATURA BELTZA SUSTATZEKO BEKAREN** deialdirat aurkezten dut nere burua, horretarako, deialdiaren oinarriak eskatzen duen dokumentazioa aurkeztuz:

Baztanen, 2018ko,

n,

a.

Eskatzailearen sinadura:

Aurkezturiko dokumentazioa:

- a) Eskaria ERANSKINA
- b) Laginaren itzulpena
- c) Nortasun agiriaren kopia
- d) Banku-etxearen agiria.